

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Zentzumenen apeta

BABALOREEN INBASIO SASOIAN, Europako Batzordearen ekimenez, 1.657 zientzialariren artean burututako lana biltzen duen DAISIE (Delivering Alien Invasive Species Inventories for Europe) proiektuaren emaitza argitaratu eman da. Bertan kontinentean ditugun mikroorganismo, animalia eta landare “inbaditzaileen” zerrenda egin, haien fundamendua aztertu, bere eginak dituzten sailak sailkatu eta sor ditzaketen arazo berri bildu eta hedatu da. Orain dela ez asko ARGIAko beste sail batean nioen, ez naiz ni inbaditzaileak beldurraren altzotik begiratu zalea. Nola izango naiz, bada, inbaditzaile eta txikitzaile nagusiak geroni izaki...

Laburbilduz, 10.822 espezie inbaditzaile seinalatu dituzte: uretako 1.693 espezie, lurreko 2.000 eta 500en bat animalia, perretxiko gutxi batzuk eta 6.630 landare. Ehun okerrenen artean hemezortzi landare ikusten dituzte. Gure begietara ezagunak dira, batzuk; neuretara hamaika: mimosa (*Acacia dealbata*), ailantoa (*Ailanthus altissima*), sasi-akazia (*Robinia pseudoacacia*), errio bazterretako *Fallopia japonica*, panpa-lezka (*Cortaderia selloana*), *Carpobrotus edulis* lehorzalea, baltsamintarretako *Impatiens glandulifera*, indipikondoa (*Opuntia ficus-indica*), Virginiako aranondoa (*Pru-*

*nus serotina*), arkakaratse jende arteko *Rosa rugosa* eta errododendroa (*Rhododendron ponticum*). Dendenak gure onerako ekarriak, geure zentzumenen asetzeko: usain gozo berriak, koloreen lore bikainak, dotorezia exotikoa, ohizkanpoko bitxikeria... Dena zuten aldeko, dena ziguten alde ematen. Gure zentzumenaren zentzua okertuta, seme emankorra bat-bateko apetan etxekaltetzat jotzen denean bezala, ez bera aldatu delako, landare, baina... areio bihurtzen dugu.

Ezker-eskuin, landare horiei begiratzen zaien eran saiheska erreparatuz, Frantzia 1.263 eta Espainian 857 landare espezie sartu dituzte zerrendan. Lehenaz gain, inbadituta gaude!



Panpa-lezka (*Cortaderia selloana*).

ASIER MENTXAKA



JAKOBA ERREKONDO

## 670

670 metro koadroko gerizpea eskaintzen du Gardeko intxaurrondo (*Juglans regia*) ezagunak. Gerizpeaz gain itzala ere handia du, Nafarroako 22. monumentu naturala da, merezimendu osoz, gainera. 1,32 metroko diametroa duen enborra, 4,14ko gerribuelta eta 19,2ko garaiera ditu. Zuberoapean, Gardelar ibaiaren aldamenean, Euskal Herriko intxaurdi politeneta-ko batean bizi da monumentu hau, eta bertakoek diotenez intxaurra latz ematen du.